



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2015/08/21

Abuztuko lehenengo egunetan, tenperaturak leunak izan ziren, eta euria ere egin zuen han eta hemen, indar aldakorrez, eta, hori dela eta, hezetasuna gehitu egin zen giroan, eta gaitz kriptogamikoaren arriskuak ere gehitu egin ziren. Hala ere, azken aste honetan, egoera klimatologikoa ezin egokiagoa izan da heldzearen aurreko prozesua ohiko eran gerta zedin: egunez, tenperatura leunak eta hezetasun erlatibo txikia, eta, gauez, fresko.

Gaur egun, Arabako Errioxako mahastien % 95 helduta dago, eta gune garaieneko zenbait mahasti baizik ez daude fase hori erabat betetzeke. Mahats beltzaren barietateak heldutasun betean daude (egoera fenologikoa M2), eta mahats zuriaren barietateak heldu hurren dira (N). Horrek esan nahi du gutxienez astebete aurreratu dela heldutasuna, urte arrunt batekin alderaturik.

Abuztuko hilabete honetan zehar, ohiko tratamenduak eman dira, are ohi baino arreta handiagoarekin ere, aurreko kanpainetako esperientzia txarra gogoan. Abuztu hasierako kazkabarra izan ezik, ez da izan gorabehera handiagorik hemen aipatzeko modukorik. Zurin eta gorrin fokuak ikusi izan dira, eta arazo handirik gabe kontrolatu.

Txingorrak jotako sailei dagokienez (uztaila eta abuztua), ondo ari dira beren oneratzan, eta zauriak ixten ari dira. Nolanahi ere, produkzioan izango duen eragina handiagoa izango da txingorrek uztailean jotako sailetan. Abuztuko txingorrek, zalaparta handiagoarekin etorri arren, kalte gutxiago eragin zuen.

Osasun txarrean dira, eta mahatsondoak nekez eusten dio hostoari.

Espero den errendimendua Kontseilu Arautzaileak ezarritakoa baino doi bat handiagoa da.

Izan litekeen graduari buruz errefraktometroztan bildu diren datuek erakusten dituzten mailak gehiago dagozkio mahats biltzearen aurreko egunei ezenez oraingo garaiari; hala ere, heldutasun fenologikoak, hazien itxurak, azalaren ehundurak eta laginek desoreka bat erakusten dute, eta urteak ekarri duen klimatologiaren ondorioa izan liteke hori.

Mahats biltzearen aurreikuspenari dagokionez, gaurko egunez, esan dezakegu ezen:

- Mahats zuriaren barietate berriak (sauvignon blanc, chardonnay, verdejo eta tempranillo zuria) datorren astetik aurrera has litezkeela biltzen.
- Barietate nagusiak (tempranillo eta biura) aurreratuta datoz graduaren aldetik, astebete gutxienez, iragan kanpainarekin alderatuz gero, hura ere ezohiko eran etorri zelarik aurreratuta. Hala ere, esan dugunez, heldutasun fenologikoak ez darama erritmo bera. Datozen egunak aste hau bezalakoak badatoz, kalitate oneko mahatsa bildu ahal izango da, gutxienez 10 eguneko aurrerapenarekin. Okerrera egiten badu, urtea oso zaila dateke,

eta presako neurriak hartu beharko dira, mahatsa garaia baino lehen biltzea ere baztertu gabe.

Horrenbesterekin, datozen egunak funtsezkoak izango dira uztaren kalitateari begira. Aurrerantzean ere, beharko dugu egunaren eta gauaren arteko jauzi termikoak izan daitezen, eta ez dadin izan euririk, zikloaren amaiera moteldu ez dadin eta mahatsaren osasunari kalterik eragin ez dakion.

Aurten, inoiz baino gehiago beharbada, eguraldia zaindu beharko da, bai eta mahatsa unez une zer egoeran dagoen, behar izanez gero zirt edo zart egiteko. Mahasti bakoitza mundu bat da, eta, beraz, sail bakoitza zaindu beharko dugu, bakoitzean zer behar den, huraxe egiteko.

Ezarri beharko diren neurrien artean, arriskua antzemanaz gero, honako hauek:

- Hostoak kentzea: mahats mordoak eguzki gehien hartzen duen lekuan behar duen babesak kendu gabe. Mahatsondoak behar beste hosto du.
- Mordoak mehatzea mordo pilaketa ageri duten eta/edo errendimendu handia dakarten mahatsondoetan.
- Mahats biltze hautatuak egitea.

Laburbilduz, mahastiek itxura ona ageri dute, errendimendua ohikoa baino handixeagoa dutela baina datarik erabakigarrienak iristeko daudela.